



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

PRENTSA OHARRA

## Bizkaiko aurrekontuak tramitazioagaz jarraitzen dau, EH Bilduk osotasunari aurkeztutako zuzenketa-eskea atzera bota eta gero

Gernikan, 2013ko abenduaren 10ean

Gaur goizean Gernikan izan dan Batzar Nagusietako osoko bilkureak atzera bota dau EH Bilduk 2014ko Bizkaiko aurrekontuen proiektuaren osotasunari aurkeztutako zuzenketa-eskea. Hori izan da eztabaidatu dan bakarra, PP-k bere zuzenketa-eskea baztertu egin dauelako, talde horrek Aldundiagaz eta EAJ-PNV-gaz aurrekontuetarako akordioa lortu ostean. Hasieran Aldundiak eta EAJ-PNV-k PSE-EE taldeagaz lortu eban akordioa. Koalizino abertzaleak aurkeztutako zuzenketa-eskeak EAJ-PNV eta PP taldeetako batzarkideen kontrako 30 boto, PSE-EE taldearen 9 abstentzino eta EH Bildu taldearen aldeko 12 boto jaso ditu.

Jose Maria Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako Diputatuak azpimarratu dauenez, aurkeztu eta Bizkaiko Batzarretan ordezkartzea daukien lau taldeetatik hiruen artean lortutako akordioaren ostean onartu diran aurrekontuak, “hemen bizi garen pertsonak eta Bizkaiko ekoizpen sarea bultzatzera” dagoz zuzenduta. Kontuak egiteko orduan, 2014rako “hazkundearen zelanbaiteko suspertzea izan dogu kontuan, atzerako bidea erakutsi daben bi urteren ostean”, azaldu dau. Horri esker, Lurraldeko aurrekontuek %5,2ko hazkundera izan dabe. Diru-sarrerak 6.620,5 milioi eurokoak izango dira. Horreetatik, 1.502,2 milioi Aldundiaren beraren kudeaketara bideratuko dira.

EH Bilduk aurkeztu dauen osoko zuzenketa-eskea defendiduteko txandea heldu danean, Iruone Soto bozeroaleak adierazo dau aurrekontu horreek, “beste erakunde batzuetan lortu dan hitzarmena jarraitu baino ez dabela egiten”, eta, ganera, bere eretxiz “antisozialak, mugatzaileak eta matxistak dira”. Ezker abertzaleko batzarkidearen eretxiz, 2014ko kontuek, beste ekitaldi batzuetakoen “errezeta oker berberak” ditue, “ez dabe enplegu publikorik sortzen eta ez dabe politika sozialetan inbertitzen”. PSE-EE taldearen laguntzea lortu dabe, sozialistek kudeatutako udaletara zuzendutako “4,5 milioi euroren truke”. “Batzuek oso merke saltzen dabe euren burua!”, adierazo dau Sotok, talde sozialistak hemendik aurrera ez dauela oposizionorik egingo salatu eta gero, akordio horreek, “gitxienez”, 2017. urtera arte luzatuko diralako.

Beste aldean, aurreikuspenen arabera, Gabonen aurretik egingo dan osoko bilkura batean aurrekontuak onartzeko aukerea emongo daben hiru taldeek, “desbardintasunen ganetik” akordioak lortzearen garrantzia azpimarratu dabe. “Garai gogorak dira, eta argi apur bat ikusten hasi garen arren, oraindino krisi garaian gagoz, eta badakigu beharrezkoa dala akordioak lortzea”, Lorea Bilbao bozeroale jeltzaleak adierazo dauenez. “Herritarrek akordioak lortzea eskatzen deuskue, baliabideak urriak diralako eta beharrak biderkatu egiten diralako”, gehitu dau Esther Martínezek (PP). “Bizkaiaik egonkortasuna behar eban”. “Danok egin behar dogu ahal doguna krisiak eragindako noraeza ekonomikoari aurre egiteko”, amaitu dau Iñaki Egaña sozialistek, bere botoa azaltzeko txandan.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Hiru taldeek EH Bilduk aurrekontuak negoziatuko prozesu horretan erakutsi dauen jarrera kritikau dabe. Talde hori “norabide barik” dabilela eta planteamendu “maximalistetan” bakarrik geratzen ari dala adierazo dabe. “Danokaz batera alkartzeko eta egun argira urtetako erabagia hartu behar dozue”, eskatu deutse Lorea Bilbaok. Batzarkide jeltzaleak, “ea” akordio hori beste arlo batzuetako akordio gehiagoren aurrekaria dan, adierazo dau, “bakean eta alkarbizitzan, enpleguan, gizarte politketan, hezkuntzan edo hizkuntz politikan, adibidez”.

Aurrekontuak onartzeko izapideak datorren astearen hasieran jarraituko dau, zuzenketa-eske parzialak Ekonomia eta Ogasuneko batzordean eztabaidatzen diranean. Lurrealdearen 2014ko kontuek Batzarretan egin behar daben ibilbidea Gabon aurretik Gernikako Batzar Etxean ospatuko dan azkeneko osoko bilkuragaz amaituko da behin betiko.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA

## El presupuesto de Bizkaia continúa su tramitación tras rechazarse la enmienda a la totalidad de EH Bildu

Gernika, a 10 de diciembre de 2013

El pleno de las Juntas Generales, que se ha celebrado esta mañana en Gernika, ha rechazado la enmienda a la totalidad presentada por EH Bildu al proyecto de presupuestos de Bizkaia de 2014, la única que se ha debatido tras retirar el PP su enmienda después del acuerdo presupuestario alcanzado por este grupo con la Diputación y el PNV, que llegaba después del firmado inicialmente con el PSE-EE. La enmienda de la coalición abertzale ha sido desestimada por 30 votos en contra, los que sumaban los junteros de PNV y PP, 9 abstenciones (PSE-EE) y 12 votos a favor de los representantes de la coalición abertzale.

El Diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarizaga, ha destacado que los presupuestos presentados y corregidos posteriormente tras el acuerdo alcanzado entre tres de los cuatro grupos con representación en la cámara vizcaína, están dirigidos “a apoyar a las personas que vivimos aquí y al tejido productivo” de Bizkaia. Las cuentas han sido confeccionadas teniendo en cuenta un marco económico para el año 2014 de “cierta recuperación del crecimiento tras superar dos años consecutivos de recesión”, ha afirmado. Esto ha permitido que los presupuestos del Territorio crezcan un 5,2%. Los ingresos se situarán en los 6.620,5 millones. De ellos, 1.502,2 millones serán para gestión propia de la Diputación.

Llegado el turno de defensa de la enmienda a la totalidad presentada por EH Bildu, su portavoz, Irune Soto, ha afirmado que estos presupuestos son “seguidistas de un pacto en otras instituciones”, al tiempo que los ha considerado “antisociales, restrictivos y machistas”. Para la apoderada de la izquierda abertzale, las cuentas de 2014 ofrecen las “mismas recetas erróneas” de otros ejercicios, “no crean empleo público, ni invierten en políticas sociales”. Llegan con el apoyo añadido del PSE-EE “a cambio de 4,5 millones de euros” para ayuntamientos gestionados por los socialistas. “¡Qué barato se venden algunos!”, ha exclamado Soto, después de denunciar que la formación socialista dejará de hacer oposición, ya que estos acuerdos abarcan “como mínimo” hasta el año 2017.

En el polo opuesto, los tres grupos que previsiblemente permitirán aprobar los presupuestos en un próximo pleno a celebrar antes de navidades, han destacado la importancia de alcanzar acuerdos “por encima de diferencias”. “Son tiempos difíciles, atisbamos por fin algo de luz, pero inmersos como estamos todavía en un tiempo de crisis somos conscientes de la necesidad de acuerdos”, ha afirmado la portavoz jeltzale Lorea Bilbao. “Los ciudadanos nos exigen llegar a acuerdos en momentos en los que los recursos son escasos y las necesidades se multiplican”, ha añadido Esther Martínez (PP). “Bizkaia necesitaba estabilidad”. “Todos tenemos que hacer lo posible por poner freno a la deriva económica que provoca esta crisis”, ha concluido el portavoz socialista Iñaki Egaña en su turno de explicación de voto.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Desde estas formaciones no han faltado las críticas hacia la actitud mantenida por EH Bildu en este proceso de negociación presupuestaria. Han censurado a esta formación de ir “sin rumbo” y de quedarse solos en sus planteamientos “maximalistas”. “Decidan comenzar a sumar y salgan a la luz”, les ha pedido Lorea Bilbao, que ha deseado que “ojalá” este acuerdo presupuestario sea además el preludio de otros acuerdos en materia de “paz y convivencia, empleo, políticas sociales, educación o política lingüística”.

El trámite para aprobar los presupuestos proseguirá con el debate, a principios de la semana próxima, de las enmiendas parciales en la comisión de Economía y Hacienda. El recorrido parlamentario para las cuentas del territorio de 2014 finalizaría definitivamente con un último pleno a celebrar en la Casa de Juntas de Gernika antes de Navidad.